

'Legazpi 400 urte aske' logotipo lehiaketa abian da

Legazpi » 2008an Legazpi Seguratik banatu zeneko 400 urte beteko dira, eta data gogoratzeko logotipo lehiaketa abiarazi dute

MIRIAM LUKI

Datorren urtean Legazpi Seguratik banatu zela 400 urte beteko dira. Duela hilabete batzuk batzorde bat osatu zuten banaketa haren urteurrenaren ospakizunak antolatzeke asmoz. Testuinguru horretan Udalak *Legazpi, 400 urte aske* lelopean logotipo lehiaketa antolatu du.

Lehiaketa irabazten duen logotipoa urteurrenaren inguruan egingo dituzten ekitaldi guztietan erabiliko dute; ospakizumen irudia izango da, beraz.

Epea, urtarrilak 11 arte

Logotipo lehiaketan pertsona fisikoek eta juridikoek ere parte hartu ahal dute. Juridikoaren kasuan, eu-

ren egoitza Legazpin bertan izan beharko dute. Baldintza betetzen deia egiaztatzeke bide desberdinak erabil ditzake antolakuntzak, estatutuak aurkeztuz adibidez.

Egileek edozein motako euskarria erabili ahal izango dute, eta aurkezterakoan koloretako bertsioan eta gris-eskalan aurkeztu beharko dute. A-3 eta A-4 orri-formatuetan aurkeztu behar dira, bertikalean eta etzanean. CDan grabatuta ere egon beharko dute, bereizmen handiko jpg eta tiff formatuetan, hain zuzen ere.

1.000 euroko saria

1.000 euroko saria Sari bakarra emango dute lehiaketan, udaltxeko batzar aretoan emango dutena jendaurreko ekitaldi batean.


Lehiaketa irabazten duen lanaren jabetza intelektuala Udalarena izango da eta berak erabakiko du logotipoaren erabilera egokia. Sarjitutako lanaren egileak bere irudia erreproduzitzeko eta erabilitzeko eskubidea Udalari utzi beharko dio.

Horrez gain, logotipoaren barruko testua aldatu eta kendu ahal izango du Udalak. Bestalde, erakusketa antolatzeke aukera ere izango du lehiaketara aurkeztutako lanekin.

Epaimahaiaren osakera

Legazpi 400 urte aske izeneko batzorde bereziak izendatutako ki-deek osatuko dute epaimahaia, eta gaiari adituak diren pertsonen aholkularitza jaso ahal izango dute.

Osatzen den epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek ezarritako helburuak betetzen ez badituzte Legazpi Udalak logotipo lehiaketan saria hutsik uzteko eskume-na izango du.



Harriari tira egiteko prest

GOJERRI » Bihar izango da gizon proba Zumarragako Euskadi plazan, eguerdiko hamabietan. Urretxuko eta Zumarragako talde bana lehiatuko dira 1.700 kiloko harriari tiraka. Irudian, ezkerrean Jose Luis Elgarresta Urretxuko taldearen botileroa, eta eskuinean Toribio Kerejeta Zumarragako taldeko botileroa, harriaren gainean eserita. OTAMOTZ



Francisco de Asis, Farmazilari Elkargokoak, eta Legazpi Udalak hitza

«Askatasuna erosi zuten»

XABIER LOPEZ DE MUNAIN » Udaltxeko artxibozaina

M. LUKI

Xabier Lopez de Munain (Gasteiz, 1959), Legazpi Udaltxeko artxibozaina da orain 18 urtetik. Buru-belarri ari da Legazpiren eta Seguraren arteko banaketaren inguruan ikertzen eta datorren urtean gai horren inguruan egingo duten erakusketa prestatzen.


Zenbat urtean egon zen Legazpi Seguraren menpe?

1384. urtetik 1608. urteraino Legazpi Segurako alkatearen jurisdikzioaren menpe egon zen.

Urte asko, ala?

1564. urtean beste saio bat egin zuten Seguratik banatzeko, baina Gaztelako Hazienda Kontseiluak ez zuen onartu.

1608. urtean, ordea, banaketa gauzatu zen.



MIRIAM LUKI

Bai. Sekretupean ibili zen Legazpi eta beste herri txikiak aurre hartu ziren. Felipe III.aren egoera ekonomikoa ez zen ona, eta Legazpi bere askatasuna erosi zion. 1615ean Legazpiren adibidea ja-

rraituz beste herri txiki ugari askatu ziren.

Zenbat biztanle zeuzkan Legazpi garai hartan?

220 bizilagun zituen, eta bizilagun bakoitzeko 20 dukat ordaindu zituen herriko kontseiluak. Kontuan hartu zituzten umezurtzak, alar gunak eta herriaren bizi zireen txiro guztiak. Horregatik egin zuten 1608. urtean errolda.

Geroztik zein egoeratan gelditu zen Legazpi?

Alkate propioa zuen eta eserleku bat Gipuzkoako Batzarrean. Burdinolen gainbehera etorri zen XVII. mendean, eta XX. mendera arte herriak biziraun zuen. 1908. urtean Patrizio Etxeberriarekin industria berpiztu eta Legazpi hazten hasi zen.

Sinatu dute botiken erabilera hobetuko duen hitzarmena

Gizartea » Legazpi Udalak eta Gipuzkoako Farmazilarien Elkargokoak sustatuta programa berria ipiniko dute indarrean.

M. LUKI

Botiken erabilera hobetzea helburu duen programa martxan ipintzeko akordioa sinatu dute Legaz-

piko Udalak eta Gipuzkoako Farmazilarien Elkargokoak. Gipuzkoan egitasmoa probatuko duen lehenengo herria izango da Legazpi.

Programa etxeko etxeko laguntza erabiltzen duten herritarrei zuzenduta dago; 103 familia daude zerbitzu hori jasotzen dutenak. Hasteko hiru hilabeteko proba egingo dute, hamabi erabiltzailek eta Legazpi Udalaren farmaziek parte hartuta.



KULTURA SAILEK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

bel aize
PSIKOLOGIA TALDEA
KLINIKA ETA IKERKUNTZA
San Martin kalea, 53-3a ezk. 3
20007 DOÑOSTIA
943-47.3430



ZUMARRAGAKO UDALA

Ba al zenekien...

... 146 lagun dabiltzala udal euskaltegian euskara ikasten?

Zumarragako Euskara Zerbitzua